

Ikasturte hasierako guraso bilera orokorra

- LH3 -

Orereta-Errenterian, 2023ko irailaren 25ean

1. METODOLOGIA

Lehenengo eta bigarren mailan hasitako bideari jarraituz, ikasleak era autonomoan aritzeko uneak eta guneak diseinatu ditugu, erabakiak hartzen eta euren burua erregulatzen ikasi dezaten. Orohar, proiektuetan oinarritutako ikaskuntza izango da ardatza (Txanelako unitateak). Taldeka zein bakarka gauzatu beharko dituzte proiektu horiek euren ikasketa prozesua garatzen laguntzeko helburuz.

2. EBALUAZIOA

Ikaslearen heziketa prozesua kompetentzietan oinarrituta ebaluatuko da. Ikasturtean zehar bi informe jasoko dira ikasleen lorpenak, garapena eta hobetzekoak islatuz. Informe idatzi hauek Inika bidez helaraziko dira, bata urtarrilaren azkeneko astean eta bestea ekaineko azken eskola egunean.

Ondokoak dira informeetan ebaluatuko diren kompetentziak, definizio xume batez lagunduta:

- **Norbera izaten ikasteko kompetentzia**
“Beharrezkoa da gizabanakoei baliabideak ematea beren nortasuna eraikitzen laguntzeko eta pertsonak duen potentzialtasuna ahalik eta gehien garatzeko.”
- **Elkarbizitzarako kompetentzia**
“Pertsonen arteko, taldeko eta komunitateko egoeretan parte hartzea da, gainerako pertsoneri aitortuz nor bere buruari aitortzen dizkion eskubideak eta betebeharrak.”
- **Ikasten eta pentsatzen ikasteko kompetentzia**
“Ikasteko eta lan egiteko ohiturak, ikasteko estrategiak eta pentsamendu zorrotza izatea da, ikasitakoa erabili eta beste testuinguru eta egoera batzuetara transferitzea, norberaren ikaskuntza autonomiaz antolatzeko.”
- **Ekimenerako kompetentzia**
“Ekimenez jardutea eta prozesu ekintzailea ausart eta eraginkor kudeatzea da.”
- **Hizkuntza eta literatura komunikaziorako kompetentzia: euskara**
“Euskarazko hitzezko eta idatzizko testuak erabiltzea da, bizitzako egoera guztietan egoki, eraginkortasunez eta hizkuntza aniztasuna errespetatuz komunikatzeko.”

- **Hizkuntza eta literatura komunikaziorako kompetentzia: ingelesa**
“Ingelesezko hitzezko eta idatzizko testuak erabiltzea da, ingelesez, bizitzako egoera guztietan egoki, eraginkortasunez eta hizkuntza aniztasuna errespetatuz komunikatzeko.”
- **Matematikarako kompetentzia**
“Jakintza matematikoa erabiltzea bizitzako beharrezkoen dagozkien arazoak interpretatzeko, deskribatzeko, azaltzeko eta horiei erantzuteko.”
- **Zientziarako kompetentzia**
“Zientziaren jakintza eta metodologia modu koherente, bidezko eta zuzen batez erabiltzea testuinguru esanguratsuetan sistema eta fenomeno naturalak interpretatzeko, errealitatea ebidentzia zientifikoen argitara ulertzeko eta erabaki arduratsuak hartzeko bizitzaren esparru eta egoera guztietan.”
- **Gizarterako eta herritartasunerako kompetentzia**
“Nork bere burua, norberaren taldea eta bizi duen mundua ezagutu eta ulertzea da, gizarte zientzien jakintzak eskuratuz, kritikoki interpretatuz eta erabiliz.”
- **Arte komunikaziorako kompetentzia**
“Hainbat kultura- eta arte-adierazpen ulertzea eta modu kritikoan balioestea. Era berean, arte-hizkuntzak ezagutzea, eta haien kodeak erabiltzea arte-mezuak ekoitzi eta nork bere burua ekimenez, irudimenez eta sormenez adierazi eta komunikatzeko.”
- **Kompetentzia motorra**
“Norberaren eta gainerakoen jardun-eremu motorreko egoerak sormenez eta adierazkortasunez lantzea. Jarduera fisikoa eta kirola egiteko ohiturak hartu eta, bizimodu osasungarrian oinarrituta, ongizate osoa lortzen laguntzeko.”

Informeez gain, LH 3. mailako tutoreak 2 aldiz elkartuko dira ikasleen familiekin euren seme-alabaren ikasketa prozesua gertutik jarraitzeko asmoz:

- **1. bilera:** azaro erdialdetik abendu erdialdera burutuko da. Bilera horren xedea ikasturte hasieran egindako aurre-ebaluaziotik jasotako informazioa familiarekin partekatzea izango da.
- **2. bilera:** maiatza eta ekaina artean egingo da, maila bukaerako ikaslearen gaitasunei buruz aritzeko.

3. ARLOAK

3.1. GAIK ETA PROIEKTUAK

3.1.1. Txanela

Nagusiki, Euskara eta Literatura, Zientzia, eta Gizarterako eta Herritertasunerako kompetentziak garatzen laguntzen digun materiala da. Ikasleek, oro har, oso gustuko dituzten gaiak aukeratzen ditugu mailari dagozkion edukiak eskuratu eta kompetentziak garatu ditzaten. Irakasle taldeak gai hauek proposatuko dizkiegu ikasturtean zehar:

1- Gure txoko kuttuna

Gai honetan ikasleek Euskal Herriko probintziak eta hiriburuak ikasiko dituzte, baita haien txoko kuttunaren deskribapena egiten ere. Amaierako proiektu gisa, ikasle bakoitzak herriko txoko kuttun bat aukeratuko du eta horren aurkezpena egingo du.

2- Egipto, Nilo ibaiaren oparia

Gabonak bitarte zibilizazio honen ezaugarriak ezagutzen arituko gara. Garai aztertzeaz amaitutakoan, proiektu bat burutuko dute: Egiptoko maketa eraikiko dute eta erakusketa bat antolatu.

3- Urte askoan, txapela kaskoan!

Esloganak, aholkuak, definizioak, ipuina, pertsonaien deskribapena eta kontzeptu mapa landu ondoren, ikasleek zentzumenen ginkana antolatuko dute, zentzumen bakoitzaren garrantzia azpimarratuz eta bakoitza nola zaindu dezakegun adieraziz.

4- Xangai, Xian, Xi, txinatarrekin ederki!

Txinatar zibilizazioaren ezaugarriak ezagutzeaz gain, unitate honetan antzerki-gidoia, igarkizunak, olerkia eta kontzeptu-mapa landuko ditugu. Amaierako proiektuan ikasleek antzerki bat prestatu beharko dute ikasitako guztia aplikatuz.

5. Buruargia? Bizkorra? Zein jakintsua den natura!

Gai honetan ekosistema bati buruzko txostena eta animalia eta landareen fitxa eta azalpen testuen bilduma sortu beharko dute ikasleek. Horrez gain, konparaziozko azalpena, azalpen-testua, eztabaida formala, olerkia eta definizioa ere landuko ditugu.

3.2. IKASGAIK

ARTE HEZKUNTZA

Arte Hezkuntzako saioetarako, Arno Sternen eta Karl Orffen teoriak hartu ditugu oinarri gisa. Haien ideiak aintzat hartuz, ikasleek barruan dutena adierazteko baldintza egokiak

eskaintzea da gure egitekoa (espazioa, materiala, giro atsegina), eta ikerketa eta esperimentaziorako aukerak ematea.

GORPUTZ HEZKUNTZA

Lehen Hezkuntzako saioetan ingurune fisiko egonkorretan egiten diren jarduerak dute presentzia; jolas arautua, jolas kooperatiboak, gorputz eskemaren lanketa eta gorputz adierazpena edo erritmoa aintzat hartuz.

GAZTELANIA

Honako hauek izango dira landuko dituzten gaiak:

1- ¡En marcha!

Gai honetan ikasleek biografia linguistiko bat osatu beharko dute auzoa, herria eta hiriaren lanketa egitearekin batera.

2- Mensajes secretos

Mezu sekretuz betetako obeliskoak sortuko dituzte antzinako Egiptoko zibilizazioa oinarri hartuta. Horrez gain, pertsonen deskribapena eta ahozko jarraibideak ere landuko dituzte.

3- Feria de invierno

Unitate honetan ikasleek elikagaien azoka antolatuko dute Euskal Herriko produktuak erabiliz. Gainera, kontzeptu mapa eta egunerokoaren lanketa ere egingo dute.

4- Papel y cartón

Paperaren inguruko ikerketa abiatuko dute grafikoak interpretatuz.

5- Con la música a otra parte

Ipuin musikatuak sortu, irakurri eta grabatuko dituzte.

6- Nuestras mascotas

Ikasleen animalia maitatuenen deskribapenak sortuko dituzte ondoren erakusketa batean aurkezteko.

INGELESA

Buddy materiala erabilita, ikasturtean zehar ikasleak bost istorioetan murgilduko dira. Helburua ipuinetan, abestietan eta jolasetan ikasitako esaldi egiturak barneratzea eta egunerokotasunean txertatzen joatea izango da. Honako hauek izango dira landuko dituzten gaiak:

1. The universe
2. Euskal Herria history/ geography
3. Matter (*istorio honetan ikasleek antzerkia egingo dute*)
4. Healthy habits
5. Water cycle

BARATZEA

3. mailan finkatu dugun proiektua da baratzea. Helburu hauek ditu:

- Talde lanaren garrantziaz jabetzea: elkar lagunduz, ideiak proposatuz, iritzia adostuz, lanak banatuz... Talde kohesioa lortu.
- Prozesuaren denbora kronologikoaz konturatu: prestatu, landu, zaindu eta jaso.
- Natura, zein emankorra eta jakintsua den ezagutu.
- Ingurua zaintzearen garrantziaz konturatu.
- Lanabesak modu zuzen eta egokian erabiltzen ikasi.
- Euskarazko hiztegia aberastu.

MATEMATIKA


Innovamat proiektuarekin, manipulazioan oinarritzen diren jarduerak proposatuko dizkiegu ikasleei, ondoren abstrakzioarako bidea egiteko gaitasuna gara dezaten. Astean lau saio izango dituzte. Bi saiotan (zenbakien laborategia) zenbakikuntza eta eragiketak landuko ditugu. Beste saio batean (abenturak) geometria, logika, estatistika eta neurriak jorratuko dira. Azken saioan App-a erabiliko dugu beste saioetan ikasitakoa sistematizatzeko helburuarekin.

TUTORETZA

Tutoretza eta Orientazioa jarduera multzo bat da, bai gela barruan bai kanpoan landuko dena, eta ikasleei bere garapenean lagunduko diena, hain zuzen ere: bere burua ezagutzen eta onartzen (garapen pertsonala), sozializazio prozesua hobetzen (garapen soziala), ikasketak aurrera eramaten (ikaskuntza prozesuak) eta etorkizunerako erabakiak hartzen (lanbide orientazioa).

Aniztasunari erantzuna

Ikasleen behar desberdinei erantzun ahal izateko neurri eta programa multzoa da, oinarrizko kompetentziak ahalik eta gehien garatzen laguntzeko.



4. ETXETIK LAGUNDUZ

Familien laguntza ezinbestekoa dugu ikasleen hezkuntzan eta, maila honi dagokionez, jarrera arduratsua eta autonomia garatzen jarraitzea oinarritzkoa da. Horregatik, honako puntu hauetan arreta berezia jartzea eskatzen dizuegu:

ASTEKO ANTOLAKETA

- Zein egunetan izango duen baratzeko saioa, gorputz hezkuntza... konturatzen laguntzea beharrezkoa dute. Egun horietarako zein arropa beharko duten prestatzen laguntzea beharrezkoa da.
- Etxera oharririk eraman duten ikusi eta hurrengo egunerako motxila eta arropak prestatzea beharrezkoa izango dute.
- Txoko txurirako liburu eta informazioa aurrez elkarrekin prestatzea beharrezkoa izango dute.

MOTIBAZIOA

- Gelan lantzen diren gaiekiko interesa erakutsi.
- Ikasturtean zehar izandako aurrerapena baloratu eta goraiatu.

EUSKARAREN ERABILERA

- Euskal komunikabideak kontsumitzera eta aisialdian euskarazko jarduerak egitera animatu.

AUTONOMIA

Bai Ikastolako jardueretan, bai eguneroko bizitzan, beraiek ardurak hartzea:

- Sortzen diren arazoei aurre egin.
- Zailtasunen aurrean jarrera baikorra eta aktiboa izan. Beraiek bila ditzatela soluzioak, betiere gure laguntza eskainiz behar dutenean.

Autonomiarantz eman beharreko prozesua progresiboa eta pertsonala da.

ARTE HEZKUNTZA

- “Ongi dago/gaizki dago”, “marrazki ona/txarra”, “polita/itsusia” bezalako komentarioak ekidin, prozesua oztopatu baitezakete. Horrelako komentarioekin, ikasleen lana epaitzen ari gara. “Gustura zaude?”, “ongi pasatzen ari zara?” bezalakoak erabili.
- “Zer da hau?”, “zer ari zara marrazten?” bezalako galderak saihestu, ikasle bakoitzaren faseak errespetatuz (kasu batzuetan, sortutako irudiak ez baitu ezer adierazteko helbururik).

- Konparaketa, lehia eta epaiketak saihestuko dituen testuingurua sortu. Ikasle bakoitzak bere erritmoa du, bere egitekoa, bere interesa... eta beraz, horiek guztiak ezin dira elkarrekin konparatu.
- Bakoitzari nahi duena adierazteko aukerak eskaini, muga eta epaiketarik gabe.

"Haur bakoitza artista da, kontua da artista izaten jarraitzea hazten zoazen heinean". (Pablo Picasso)

IRAKURZALETASUNA

Irakurzaletasuna etxean bultzatzeko gomendioak:

- Gurasoak seme-alabentzako eredu izan.
- Irakurketa afektibitatearekin lotu.
- Gurasoek istorio asko kontatu: gurasoen benetako istorioak.
- Eguneroko egoerez baliatu irakurtzeko, dituzten afizioak aprobetxatu.
- Liburutegira joan noizbehinka. Bazkide egin.
- Liburu dendetara edota azoketara joan eta liburuak beraiek aukeratu.
- Etxean liburuak eskura izan, nahi dutenean hartzeko.
- Kalitate literarioa duten ipuinak eskaini (Galtzagorri elkartearen eskutik liburu gomendioak: <https://www.galtzagorri.eus/eu/haur-eta-gazte-literatura>)
- Nahiz eta irakurtzen jakin, beraiekin irakurtzen jarraitu, irakurketa partekatu.
- Irakurketarako giro egokia bermatu.
- Lagunen artean liburuak trukatu.
- Libururik ez debekatu.
- Irakurtzen dutenaz interesatu eta guk irakurtzen dugunaren inguruan komentarioak egin.

5. ORIENTAZIO DEPARTAMENTUA

5.1. HELBURUAK

Orientazioa etengabeko laguntza prozesua da eta helburu du ikasleei oinarrizko kompetentziak eskuratzen eta bere proiektu pertsonala garatzen laguntzea. Horiek horrela, Orereta Ikastolako orientazio departamentuaren eginkizun nagusia hezkuntza orientazioa sustatzea da, curriculum osoan eta ikasle guztiekin. Departamentu honen jarduna bi prozesutan gauzatzen da, gehien bat: Tutoretza eta orientazioa, eta aniztasunari erantzuna (ikus "3.2. Ikasgaiak: tutoretza" atala).

6. PROIEKTUAK

6.1. HIZPRO–EUSKARAZ BIZI

Orereta Ikastolako sorrera-helburua euskara eta euskal kulturaren transmisioa eta sustapena dira. Etengabeko jarduerak eta kanpainak aurrera eramán arren, helburua betetzeko zailtasunak agerikoak dira Orereta Ikastolan eta euskararen lurralde osoan.

Orereta Ikastola arnagune bat dela jakin arren, asko dugu egiteko. Badira urte batzuk, ikasleak euskararen normalizazioan protagonista izendatu genituela. Euskaraz Bizi egitasmoa berrikusi eta, ikasleen aitzindaritzaz suspertuz, dinamika desberdinak jarri genituen indarrean.

Ikasleak

BLAITU euskara taldea abian da orain urte batzuk gela bakoitzeko ordezkariekin. Bertan aztertu eta diseinatuko dira etapa osorako indarrean jarritako jarduerak eta ekimenak. Beraz, euskararen erabilera sustatzeko, ikasleen motibazioa areagotu eta kalitatea hobetzeko egitasmoa da BLAITU euskara taldea. Horrez gain, 2023-24 ikasturtean proiektu berriak diseinatu eta martxan jarriko dira ikasleen artean euskararen erabilera sustatzeko eta hauen motibazioan eragiteko.

Langileak

Irakasle eta langile guztiok konpromiso argia hartzen dugu euskararen erabileraren alde eragiteko, baita dagozkigun arloetan formazioa hobetzen jarraitzeko ere.

Familiak

Gurasoen kasuan, ikasleen hizkuntz erabileran familiak duen garrantzia bereziki azpimarratu nahi dugu.

Guraso euskaldunek beren artean euskara erabiliz modurik eraginkorrena dute seme-alabengan ahalik eta hizkuntz erabilera eta gaitasun onena ziurtatzeko. Zaindu hizkuntza bizitzaren esparru guztietan.

Guraso erdaldunek ere, euskararekiko interesa erakutsiz eta seme-alaben arteko euskarazko erabilerak oro har sustatuz (euskarazko komunikabideak adibidez), seme-alaben euskararen erabileran modu positiboan eragin dezakete. Zer esanik ez euskara ikastera animatzen badira.

Jull kanpaina

2023-2024 ikasturtean Jull kanpaina jarriko da martxan. Helburua irakurzaletasuna sustatzea da. Ikastetxe bakoitzak bere etaparako liburu zerrenda bat egiten du, liburu horiek erosten dira eta ikasleak liburu horiek irakurtzen joango dira. Liburuaren Eguna

hurbiltzen denean bozketa bat egiten dute. Bozka horien emaitzak Jul kanpainaren arduradunari bidaltzen zaizkio.

6.2. ZUBIAK ERAIKIZ

2016ean sinatu genuen Zubiak Eraikiz hitzarmena Ipar Euskal Herriko lau ikastolarekin. Azken urteetan Berako Labiaga Ikastola eta Lesakako Tantirumairu Ikastolekin (Nafarroa) ere estutu dugu harremana.

Hitzarmenaren helburua

Lurralde administratibo ezberdinetan kokatuta egonik, zubi bat eraikitzea elkarrengana hurbiltzeko. Horregatik, gure Ikastoletako ikasleak, irakasleak, langileak eta gurasoak harremanetan jarri nahi ditugu, euskara ardatz hartuta; Lapurdiko, Nafarroako eta Oarsoaldeko eremu euskalduna osatzen dugun pertsonen arteko loturak indartzeko eta elkarrekin hainbat arlotako ekintzak aurrera eramateko.



7. BARNE ARAUDIA: ZENBAIT OHAR

7.1. ASISTENTZIA

Ikasleen eskubide eta betebeharrak dokumentuko 23. artikuluan oinarrituta, ikuskaritzatik eman dizkiguten jarraibideak jarraituz, hona hemen hutsegiteak justifikatzeko erabiliko dugun era:

- Klaseetara joatea derrigorrezkoa da. Klaseetara huts egitea kasu guztietan komunikatu behar da. Jarduera osagarriek eta eskolaz kanpoko ekintzek hezkuntza jarduera arrunten kontsiderazio bera dute, hutsegiteak komunikatzeko prozedurari dagokionez.
- Ikasleek etortzerik ez dutenean, ahal den guztietan, gurasoek edo legezko arduradunek inikaz jakinarazi behar dute.
- Gurasoei dagokie seme-alaben huts egitearen berri ematea; tutoreari, berriz, ontzat jotzea. Zalantzarik izanez gero, etapako zuzendaritza taldeak erabakiko du onargarria den ala ez.
- Hutsegitea onartezina denean, familiari jakinaraziko zaio. Hutsegiteen berri ematera behartuta gaude udaleko gizarte zerbitzuei eta ikuskaritzari.

7.2. OSASUN ARRETA

- Ikastolan ez diegu ikasleei botikarik emango, medikuaren agiririk gabe.
- Ikasleren bat gaixotuko balitz, gurasoei deituko zaie, eta haiek etorri beharko dute ikaslearen bila.
- Larrialdi egoera bat jazoko balitz, larrialdi zerbitzuei hots egingo zaie Ikastolatik, baita gurasoei ere.
- Gaixotasun kronikodun ikasleentzako protokolo bat dugu. Ikasleren baten kasua balitz (asma, medikazioa hartu beharra, krisialdiak...), tutoreari jakinarazi beharko zaio, berak protokoloa martxan jar dezan.
- Ikasleren batek alergia-rik edo janari batekiko arazoren bat baldin badu, sendagilearen ziurtagiria Inikaz (ikaslearen fitxatik) bidali behar da.

7.3. ESKOLA-ORDUZ KANPOKO MOMENTUAK (EGUERDIAK ETA ARRATSALDEAK)

- Eskola-ordutegia hasi aurretik (9:00ak baino lehen) eta amaitzean (16:30ean) ikasleak Ikastolako eremuan gelditzen badira, gurasoen ardurapean izango da. Eskolaz kanpoko jardueretan bertako monitoreek izango dute zaintzaren ardura.
- Gurasoek eskola ordutegia amaitu aurretik seme-alaben bila etorri behar badute, gelaraino joan beharko dute.